

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 301/2016 Erabakia, maiatzaren 24koa, aldatzen duena martxoaren 22ko 158/2016 Erabakiaren V. eranskineko erdisotoaren definizioari buruzko zatia. Erabaki haren bidez, behin betiko onartu zen Gasteizko udalerrian ondasun higiezinaren gaineko zergari loturik dauden hiri ondasun higiezinaren lurzoruaren eta eraikinen balioztapen txostena

Diputatuen Kontseiluaren 158/2016 Erabaki martxoaren 22koaren bidez onartu zen behin betiko Gasteizko udalerrian ondasun higiezinaren gaineko zergaren pean diren lurzoru eta hiri ondasun higiezinaren balorazio txostena.

Egiaztaturik V. eranskinean "erdisotoa" definitzen duen kontzeptuaren atalaren bigarren paragrafoan idatzi gabe utzi dela "salbu" terminoa, eta idatzi ez den xehetasun hori garrantzitsua dela, atal horretan ezarritakoaren hedadurari eragiten baitio funtsean, nahiz eta ez dion eragiten inola ere onartutako txostenaren gainerako edukiri.

Atal hori aldatzea dagokio orain, haren edukia egokitzearen berez zeukan xedeari.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehena. Aldatzea "erdisoto" izeneko atala Gasteizko udalerrian ondasun higiezinaren gaineko zergaren pean diren lurzoru eta hiri ondasun higiezinaren balorazio txostenaren testuan (Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 158/2016 Erabakiaren bidez onartu zen) V. eranskinean. Hona nola geratzen den idatzita:

ERDISOTOA

Erdisotoko solairutzat joko da sabaia sestratik gora duena, solairuaren altuera librearen $\frac{1}{4}$ gutxienez, eta zorua sestratik behera duena, solairuaren altuera librearen $\frac{1}{4}$ baino gehiago.

Ez dute edukiko lurzoruaren jasanarazpenik, salbu eta egotzirik dutenak txosten honetako 1.2.2. atalean adierazten den merkataritza jasanarazpeneko baliorako erabileraren bat, betiere kaletik sarbide zuzena badute.

Kasu horretan, koefiziente bat izango dute, 0,80, lurzoruaren katastro balioaren eta eraikuntzaren balioaren baturaren gainean aplikatua.

Beste alde batetik, lurzoruaren jasanarazpena izango dute erdisotoan kokatuta dauden garaje plazek, eta IV. eranskineko balioak aplikatuko zaizkie."

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta Gasteizko Udalari dagokio publizitatea ematea dagozkion ediktuek argitara emanaz, 42/1989 Foru Arauak (uztailaren 19koa, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena) 11. artikuluan 6. paragrafoan eta Diputatuen Kontseiluaren 1.080/1992 Foru Dekretuak (abenduaren 22koa, 42/1989 Foru Araua erregelamenduz geratzen duena) 15. artikuluan ezarritakoaren konforme.

Hirugarrena. Balioespen txostenaren aldaketa argitaratzen denetik aurrera, banan-banan jakinarazi behar zaizkio subjektu pasibo bakoitzari aldaketaren ondorioz sortutako katastro balioak urtea bukatu baino lehen; hain zuzen ere, balio horiek eragina izaten hasi behar duten urtearen aurrekoa bukatu baino lehen, bat etorri Diputatuen Kontseiluaren 1.080/1992 Foru

Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoarekin (1.080/1992 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, erregelamendu bidez garatzen duena ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen 42/1989 Foru Arau uztailaren 19koa).

Gasteiz, 2016ko maiatzaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ